



**EKONOMIAREN ETA ARAUEN KONTROLARI BURUZKO TXOSTENA,
KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGINIKOA, EUSKADIKO
KOOPERATIBEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI DAGOKIONEZ
(Tramitagune erreferentzia: DNCG_LEY_64437/2015_04)**

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, ekonomia-arauen kontrola arautzen du III. tituluko IV. kapituluan. Nahitaezkoa da ekonomia-arauen kontrola egitea; horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion txostena egin behar du.

Txosten hau egiteko, xedapen hauek hartu ditugu kontuan: aipatutako araua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluaren 3. atala; eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. artikulua.

TXOSTENA:

I. XEDEA

Aipatzen den Lege-aurreproiektuaren helburua sozietate-kooperatiba arautzea da. Sozietate-kooperatiba, 1. artikuluan xedatzen denez *kooperatiba enpresa batek garatzen duen sozietatea da eta haren lehentasunezko helburua beren kideen jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea eta haien beharrak beren parte-hartze aktiboaren bitartez asetzea da, kooperatibismoaren oinarriak betez eta bere inguruko komunitateari erantzunez. Bere egitura eta funtzionamendua Nazioarteko Itun Kooperatiboaren printzipio kooperatiboetara egokitu beharko ditu, eta edozein jarduera ekonomiko edo sozial burutu ahal izango du, baldin eta legezko debekurik ezartzen ez bada berariaz jarduera jakin bat burutzeko kooperatibismoaren oinarriko eskakizun eta printzipioekin bateraezin izateagatik.*

Aurreproiektuan azaltzen denez *"denboran, hurrenez hurren, 4/1993 Legea aldatzea eragin duten aipatutako legezko testuak bat egiteko premiaren ondorioz idatzi zen legegintzako testua; eta hori indarreko araua sistematizatzeko, errazago identifikatzeko eta aplikatzeko xedez; hau da, arau kooperatiboak interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoa den segurtasun juridikoa ziurtatzeko.*

Testu bakar honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren legeriaren mende dauden kooperatibei ezar dakizkiekeen xedapen guztiak jaso dira; alabaina, testu-bateratzeak baditu beste helburu batzuk ere: batetik, harmonizazio-helburua du, batez ere terminologiari eta oinarri berbera izateari eta konponbide juridikoari dagokionez; bestetik, zehaztasun-falta duten edo aplikatzeko orduan zalantzak sor litzaketen arau-elementu batzuk argitu nahi izan dira. Arau-elementuok argitzeko, bestalde, batzuetan araua gehiago garatu behar izan da zuzen interpretatzen laguntzeko, aldatu gabe jatorrizko zentzua eta helburua.

Testu bakar batek eskaintzen duen sistematizazioari dagokionez, esan behar da oso garrantzitsua dela kooperatiba-legeriak egun duen bilakaeraren barruan; izan ere, une honetan, beharrezkoa da sozietate-kooperatibak —batez ere kooperatiba-mota batzuk— garatzeko arau jakin batzuk sortu eta garatzea, betiere aldatu gabe jatorrizko legeriaren gutxieneko oinarriak.

Aldaketen barruan, azpimarratzekoa dira Administrazioaren jardunean egindakoak: nola eta zenbateraino sustatu behar dituen kooperatibak eta zer neurri ezarri behar dituen kooperatibek legea betetzen ote den kontrolatzeko".

Aztergai dugun legea izapidetzeko prozedura abiarazten duen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuaren 2015eko apirilaren 29ko Aginduaren bidez emandako datuetan EAEn mugimendu kooperatibistak duen garrantzia ikus daiteke, izan ere, bertan adierazten denez "2.000 kooperatiba arrunt inguru daude erregistratuta (sozietate-kooperatiba txikiaren 6/2008 Legeak araututakoak zenbatu gabe), eta horietan 580.000 bazkide daude eta fakturazioa 8.719 MM eurokoa da orotara".

Erreferentziazko aurreproiektua X. legegintzako Gobernuaren Legegintzako Programan barneratzen da, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak sustatu beharreko legegintzako ekimenen artean. Haatik, aurreikusita baino beranduagoa izapidetzen ari da, izan ere, 2014ko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluari helaraztea zen asmoa (2014ko urtarrilaren 14ko Gobernu Kontseiluaren arabera). Memorian soilik hau adierazten da "hura burutzeko unearen ikuspegitik, proiektua Eusko Legebiltzarrarekin adostutako 2014ko ekitaldirako betearazlearen legegintzako xedapen orokorren proposamenak eratzeko egutegian dago, horrenbestez, eragin sozial adierazgarria duten zenbait egoera bideratuta, gaur egun ez dago atzeratzeko arrazoi objektiborik...".

2015eko ekitaldiari dagokion aurrekontu-helburuen memoria behatuta, GIZARTE EKONOMIA izeneko 3212 programan zera adierazten zen:

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak honako helburu estrategikoak ditu 2015. urteari begira:

(...) 4. Kooperatiba arloko arau-esparrua (edo sozietate-leggedia) aztertu eta egokitzea, sektoreak dituen premiei erantzunez; eta, era berean, langile autonomoen elkarten erregistroari buruzko araudia gainbegiratu eta eguneratzea.

Bestalde, 2016. urterako aurrekontu orokorren Legeko GIZARTE EKONOMIA izeneko 3212 programa horri dagokion aurrekontu-helburuen memorian, horri dagokionez, zera jasotzen da:

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak honako helburu estrategikoak ditu 2016. urteari begira:

(...) 1. Euskadiko Kooperatiben Legea aldatu eta moldatzeko lege-aurreproiektuaren eraketa amaitzea eta Eusko Legebiltzarrarekin kolaboratzea hura onartzeko xedez.

Gogorarazten da, behin lege berria argitaratuta, ekitaldi bakoitzari dagozkion aurrekontu-memoretan horietako aurreikuspenak eraginkortasunez eta efizientziaz ebaluatzea ahalbidetzeko helburu, adierazle eta ekintzak jaso beharko direla, bakoitzari dagokion garrantziarekin.

Aurreproiektuak 154 artikulua, sei xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken bost xedapen ditu. Xedapen indargabetzaileak kooperatibei buruz indarrean den otsailaren 11ko 4/1993 Legea indargabetzen du berariaz eta, modu berezian, Euskadiko sozietate-kooperatiba txikia arautzen duen ekainaren 25eko 6/2008 Legearen 3. artikuluko 5. zenbakia.

Espedientea aztertuta, eta bertan dauden aurreikuspenetan erreparatuta, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen adierazpen zehatzik ez dela agertzen ikus daiteke, eta Batzorde horri dagokio kontratazio arloan eragina duten arauzko proiektuen berri ematea derrigorrez (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako administrazio arloko kontratazioaren araubidea arautzen duen ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko 21.2.a)4 artikulua). Halaber,

ez da jasotzen Ondare eta Kontratazioko Zuzendaritzari ohartarazi zaionik ere, bereziki, 145. eta 146. artikuluei dagokienez, aurreproiektuko aurreikuspenetan sektore publikoko kontratuei dagokienez indarrean den araudia errespetatzen, eta haren aurkakoak izan ez daitezten.

Oroitarazten da, 9/2004 Legeak, azaroaren 24koak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarenak, 3.1.a. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aholku-erakunde horrek aurreproiektuari buruzko irizpena eman behar duela, aurreproiektua onetsi aurretik. Azkenik, hauxe gogorarazi behar da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen amaierako lehenengo xedapenak emaniko idazketaren arabera), Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iradokizun eta irizpen proposamenen ondorioz aurreproiektuan egiten diren aldarazpenak jakinarazi beharko zaizkio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari; horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean ezarritakoa bete beharko da.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio espedienteari eta, hor, hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen –batez ere nahitaezko txostenetan egindakoei–, proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharra, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den ordenamendu juridikoaren arabera.

II- ESPEDIENTEAREN AZTERKETA

II.1.- Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 57. artikuluan agintzen du lege-proiektuekin batera azterketa bat egin behar dela, lege berriak eragin dezakeen aurrekontu-kargari buruzkoa.

Xedapen Orokorrak Eratzeko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta,*

orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du".

Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko arautegiari dagokionez, *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko 42. artikulua ezarritakoaren arabera, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena emateko ezinbestekoa da memoria bidaltzea, honako datu hauek kontuan hartuta: araua indarrean jartzeak ekarriko dituen aurrekontu-gastuak eta sarrerak; gastu horiek finantzatzeko moduak; xedapenaren aurrekariak eta justifikazioa; xedapena txertatuko den aurrekontuko programa ekonomikoa, haren helburuak, ekintzak eta adierazleak adierazita; araua aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango duen eraginaren ebaluazioa; proposatzen den arauaren ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak. Aipatutako dekretuaren 43. artikulua ezarritakoaren arabera, ekonomikoaren kontrola ekonomia eta antolaera mailako modalitateari dagokionean, dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da, hau da: bitarteko materialak eta giza baliabideak, ohiko gastua edo kapital mailakoa ekar dezaketenak bereizita; funtzionamenduaren kostuari eta zerbitzuen errendimendu edo erabilgarritasunari buruzko azterlan ekonomikoa, eta abar.*

ABJren 43/1999 irizpenak adierazten du arau baten bideragarritasunari buruzko azken asmoaren aurreikuspena aztertzeko, batzuetan hark sortuko duen gastu publikoa ez ezik gizarteari eskatuko dion ahalegina ere aztertu behar dela, eta ekar ditzakeen etekin ekonomikoei edo bestelako etekinekin alderatu, eta ondoren bi alderdiak haztatu proportzionaltasunaren printzipioari jarraiki. Azterketa hori edo kostuen eta etekinen ebaluazio hori egiteko, proiektuak dakarren gastu publikoaren balioespena egiteaz gain (Espainiako Konstituzioak baliabide publikoen bidezko banaketa agintzen duenean 31.2 artikuluan xedatzen du kostuen eta etekinen ebaluazio hori aintzat hartzen duen gastu publikoaren balioespena egin behar dela), haztatu egin behar dira ezarri nahi den arauak sortuko lituzkeen betebeharrak eta baldintzek enpresa-ekimenei eta inplikaturik dauden profesionalei ekar diezazkiekeen ondorio ekonomikoa. Besteak beste, eragin horrek zenbait ondasun eta zerbitzuren prezioan izan ditzakeen ondorioak aurreikusi behar dira.

Laburbilduta, araua onetsi aurreko hausnarketa-prozesuaren barruan hark eragingo duen gastu publikoa zehatz-mehatz ebaluatu behar da, gastu publikoaren ekonomiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzeko. Eta arauak partikularren gain eta ekonomian, oro har, izango duen eragina ere balioestea, bideragarritasuna eta zentzuzkotasuna bermatzearren.

Hori guztia aipatuta, eta bidalitako dokumentazioa aztertuta, Bulego honek ekonomia- eta arau-kontrola nahiz ekonomia- eta antolamendu-kontrola egingo ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25.etik 27.era bitarteko artikuluetan ezarritakoari jarraiki. Txosten honen zeregina, hain zuzen ere, hori da.

II.2.- ERAGIN EKONOMIKOA

II.2.1.- ADMINISTRAZIO HONENTZAKO GASTU PUBLIKOA

1.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuaren 2015eko apirilaren 29ko Aginduan, espedientea hasteari buruzkoan, adierazten denez *“Erkidegoko administrazioaren aurrekontu-araubideari dagokionez, ez da aurreikusten araua indarrean jartzeak aurrekontuan, oro har, inolako eraginik izango duenik, ezta, zehazki, EAEko administrazioan lan egiten duten langileei edota arlo horretan zerbitzu publikoak ematearen kostuari dagokienean ere”*.

Bestalde, espedientean jasotzen den memoria ekonomikoan zera adierazten da:

“Pertsona juridiko pribatu bat, kooperatiba bat, arautzen duen arau bat aldatu eta moldatu da, eta EAE honek eskumen eskusiboa du horren gainean. Horrenbestez, hura eratzeko araubidea, egiturazko aldaketak eta desagertzea, hartako araubide organiko eta funtzionala nahiz araubide ekonomiko eta sozietatekoa arautzen ditu. Horrenbestez, eskubide eta interes pribatuetan eragiten du.

Soilik aipatutako aurreproiektuaren zirriborroko 111. Tituluan aipatzen dira kooperatiben eta Administrazioaren arteko harremanak. Funtsean, bi administrazio-jardueretan du eragina: alde batetik, sustapen eta promoziokoan eta, bestetik, kontrolari buruzkoan.

Horietako lehenengoan, kooperatiba mota zehatzen egungo garapen eta egoerara egokitu dira, eremu jakin batzuetan, Eusko Jaurlaritzako Salletako eskumenei dagokienez; haatik,

proposatutako aldaketatik ez da, inolaz ere, eratorzen, aurrekontu-gastuekin lotutako betebeharririk; aitzitik, xedapen orokorrak dira, sustapen arloko ildo orokorreari buruzkoak. Hala badagokio, eta bere garaian, dagokion araua izango da gastu zehatza finkatu eta kuantifikatuko duena, eta gastu hori dagokion Memorian justifikatu beharko da.

Kontrol-jarduerari dagokionez, kooperatibaren legedia ez betetzearen ondoriozko falten tipifikazioa kooperatibaren zehaztasunera egokitu da. Beraz, kuantitatiboki murriztu egiten dira.

Azkenik, antolaketari buruzko administrazio-jardunari dagokionez, hots, Kooperatiben Erregistroa antolatu eta kudeatzeari buruzkoari dagokionez, informazio eta komunikazioaren teknologia berriei buruzko aipamen orokorrak dagoeneko aztergai dira gaur egun. Horrenbestez, ez da aurreikusten arau berritik eratorrita gastu zehatza areagotu egingo denik.

Horrenbestez, araua aldatzeak ez du eraginik, berehalako aplikazioan, aurrekontu-gastu eta -sarrera publikoetan (aurretiaz gertatzen ez zenik). Era berean, ez du eraginik, derrigorrez, Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan, bere aurrekontu-araubide orokorrean eta diru-laguntzei buruzko zehatzean; modu berean, ez du eraginik, oro har, eskubide eta betebeharrak ekonomikoen araubidean”.

Igorritako espedientea aztertuta ondoriozta daitekeenez, aztergai dugun arau-proiektuak ez du aurrekontuetan eragin zuzen eta berehalakorik, Administrazio honentzat.

2.- Bestalde, aztergai dugun aurreproiektuko 145. artikuluan (interes sozial eta erabilera publikoari buruzkoa) eta 146. artikuluan (kooperatibismoa sustatu eta hedatzeko neurriei buruzkoa) beti oinarri gehigarria behar duten kooperatiben aldeko sustapen-neurriak eta diskriminazio positiborako neurriak aipatzen dira, horrek eragin dezakeen inpaktu ekonomikoaren estimazioarekin batera.

145.2.c) artikuluan aurreikusten denez “*kooperatibek une bakoitzean adostutako salbuespen, hobari, diru-laguntza eta gainerako onura ekonomiko, fiskal eta administraziokoak izango dituzte*”. Horri dagokionez, neurriak zehazten ez direnez, ezinezkoa da abantaila horien inguruko bideragarritasun juridikoari buruzko iritzirik ematea, ezta horien kontrol ekonomiko edo arauzkoari buruz ere. Bestalde, kontrol horiek instantzia ezberdinen eskumenekoak izan daitezke. Diru-laguntzei dagokienez, kooperatibismoa bultzatu, promozionatu eta sustatzeko urteko programei buruzko hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez “*Eusko Jaurlaritzak, enplegu-arloa esleituta duen sailaren bidez, urteko programak prestatu eta gauzatuko ditu kooperatibagintza bultzatu eta*

sustatzeko, batez ere kooperatibetako enplegua sortzeko; dena den, aurretik txostena eman beharko du Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak". Ez da ematen informaziorik kooperatibismo arloan sustapenarekin lotutako programei edota gizarte ekonomia sustatzeko programei buruz. Halaber, ez dira aipatzen aurreproiektuak izan ditzakeen ondorioak balizko lerro berriak sortu edo lerroak ezabatzeari dagokionez. Edozein kasutan, oroitarazten da edozein diru-laguntza lerro ezarri aurretik plangintza estrategikoa burutu behar dela ezinbestean. Plangintza horretan lerro horiek aplikatuta lortu nahi diren helburuak eta izan daitezkeen ondorioak, hori lortzeko beharko den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzazio-iturriak zehaztu beharko dira, aurrekontuekin lotutako helburuak betetzearen baitakoak izanik, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Diru-laguntzen Plan estrategikoa eratzeari buruzko 1/15 zenbakidun Zirkular berriari dagokionez.

Azkenik, aipatzekoa da 146.9 artikuluan dagoen aurreikuspen berria. Artikulu horretan xedatzen denez "*hezkuntza arloan, eta bere eskumenaren barnean, Eusko Jaurlaritzak zentro horietan burututako inbertsioak finantzatzen laguntzeko deialdi espezifikoak egitea eta, hezkuntzazko programak promozionatuz, hezkuntza-sistemako maila guztietako hezkuntza-curriculumetan, haur hezkuntzatik unibertsitate mailako prestakuntzara arte, ikaskuntza kooperatiboari dagozkion balioak eta printzipioak txertatzea sustatuko du*". Izan ere, horri buruz Hezkuntza arloan eskumena duen Sailak ez du aipamen zehatzik egiten (dena den, egia da badela Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak mintzagai dugun Aurreproiektuari buruz egindako idatzi bat, baina ez da zuzenean horri buruzkoa) eta eragindako eragileen audientziarik ere ez da jasotzen (kooperatibak ez diren ikastetxe itunduak, etab.). Beraz, agindu horretan hezkuntza-sistemako maila guztietako hezkuntza-curriculumak azpimarratzen dira, eta aipatutako Hezkuntza Sailari irakaskuntzaren kooperatibetan egindako edozein inbertsio finantzatzeko deialdi espezifikoak susta ditzala agintzen zaio (beste zentro itundu batzuen aurrean, zeintzuk, Hezkuntzaren Lege Organikoko kontzertu-moduluen erregulazioaren (117. artikulua) arabera, 2016. urterako EAEko aurrekontu orokorrak onartzeko abenduaren 23ko 9/2015 Legearen 26. artikuluari eta IV. eranskinari dagokienez, soilik *inbertsio errealak birjartzeari* dagozkion zenbatekoak ezarriko lituzketen soilik). Dena den, aipatutako Hezkuntzaren Lege Organikoko 117. artikuluko 8. atalean erreferentzia kooperatibei soilik egiten bazaie ere, izan ere, bertan adierazten denez "*kontzertu-araubideak garatzeko araudiak irakaskuntzako kooperatiben eta zentroaren titulartasunarekin lan-harremanik ez duten irakasleen ezaugarri espezifikoak izango ditu kontuan, horien baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen kudeaketa errazte aldera*", ez dugu ezagutzen horrekin lotutako arauzko garapenik. Euskadiko hezkuntza arloko kontzertuen araudiaren erregulazioa oso aurretikoa da, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren

irailaren 8ko 293/1987 Dekretuz onartu zen. Bertan, kooperatibak aipatzen dira itunerako lehentasuna aitortzera mugatuz, indarrean den Hezkuntzaren Lege Organikoko 116.2. artikuluan ere aitortzen dena (ikus dezakegu 2015. ekitaldirako kooperatiba edo fundazio erako titulartasuna (HEZKOOP-2015) zuten sare itunduko ikastetxeetara bideratzeko inbertsioen finantziarako dirulaguntzak deitu zirela Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren 2015eko martxoaren 18ko Aginduz - *martxoaren 26ko EHAA, 58. zenbakiduna*- 12.800.000,00 euroko zenbatekoz (itxura batean, 2008. urtetik deitu gabe egon ondotik)

145.3. artikuluan aipatzen dena 1993ko Kooperatiben Legearen 137.3. artikuluan aurreikusten denaren antzekoa da (haatik, azken horretan ikuskapen-funtzioak aipatzen dira, aurreproiektuan Kooperatiben Konfederazioari esleitzen zaizkionak), zera adieraziz: "Enplegu-arloa adskribatuta duen sailaren bidez jardungo du Eusko Jaurlaritzak kooperatibagintzako arloan, eta sail horri, bestalde, *behar dituen baliabide pertsonal eta materialak jarriko dizkio dituen sustapen-, zabalkunde-, prestakuntza- eta erregistro-funtzioak bete ditzan*; dena den, horrek ez du eragotziko beste sail batzuek ere beren eskumenak betetzea, aplikatu beharreko legeri bereziak onartzen dizkienak".

Memoria ekonomikoan ez da hornidura horren legezko aurreikuspenak dakarren kostuari buruzko daturik ematen, eta Lagaan jasotzen diren aurreikuspen berriekin etorkizunean gastu gehigarriren bat aurreikusten den, edo gasturen bat murriztuko ote den, ere ez zehazten.

3.- Bazkide kolaboratzaile izan daitezkeen pertsonen buruzko 19. artikuluan, pertsona juridiko publikoak halakotzat hartzeko aukera mantentzen da. Dena den, zera gaineratzen da: "kooperatiba bilakatutako jardueran duten partaidetzaren arabera, bazkide kolaboratzaileek *kooperatibaren emaitzetan parte hartzeko eskubidea izango dute*, baldin eta Estatutuetan berariaz hala aurreikusten bada edo Artekaitza-kontseiluak hala adosten badu...". Galerak beregain hartzeko betebeharra balego, ogasun publikoarentzat ondorio negatiboak izango lituzkeen (emaitzen arabera ez diskriminatzeagatik, edo negatiboak balira mugarik ez ezartzeagatik) aurreikuspenaren birplanteamendua edo eraketa gogoetara eramaten da.

4.- Antolamenduari dagozkion alderdiei dagokienez, zera agerian uztea:

1/- 15. artikuluan **Euskadiko Kooperatiben Erregistroa**, dagoeneko existitzen dena, aipatzen da, enplegu arloan eskumena duen sailera atxikitako

erregistro modura, eta 4/1993 Legearen 15etik 18ra bitarteko artikuluetan, egun indarrean daudenak, jasotako moduaren antzera arautzen da. Berrikuntza modura, aurreikuspen jakin bat sartzen da, zeinaren arabera, erregistroak bere harremanetan *"harreman horiek ahalbidetzeko xedez, bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera"* sustatuko dituen. Memoria ekonomikoan adierazten denez, *"informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien inguruko aipamen orokorrei buruzkoak dagoeneko aztergai dira gaur egun..."*, baina ez da kostu materialei (euskarri informatikoak, telematikoa, mantenua, etab.) eta pertsonalei (horri egun dauden bitarteko pertsonalak erabiliz gauzatzen den egun ala mekanizazioaren ondorioz bitarteko pertsonal gutxiago beharko ote diren eta, hala badagokio, eragindako plaza gutxiago beharko ote diren...) buruzko estimaziorik egiten.

2/.- 154. artikuluan **Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusia** aipatzen da, kooperatibagintza sustatu eta hedatzeko organo goren gisa, eta aipatzen dene, erakunde publikoa da, eta haren eginkizuna da Euskal Autonomia Erkidego administrazio publikoek kooperatibagintzaren arloko gaiei buruz egiten dituzten kontsultak jasotzea eta administrazio publiko horiei aholkuak ematea. Beraz, egungo lege-araudian (indarreko 4/1993 Legearen 145. artikulua eta hurrengoak) aurreikusten denaren antzekoa aipatzen da. Nabarmentzekoa da kooperatiben ordezkaritza bertan gehiengoa izatetik % 50ekoa izatera igarotzen dela eta, batez, ere, funtzio bat esleitzen zaiola, hots, ikuskapenarena, indarreko arauan (145. artikulua) esleitzen ez zaiona. Funtzio horrek, dagozkion ohar juridikoen kalterik gabe, finantzazio gehigarria behar izan dezake (eta bere aurrekontuan, hein batean, EAEko aurrekontu orokorretatik esleitzen zaizkion zenbatekoekin finantzatzen da).

5.- 145. eta 146. artikuluetan barneratzen den erregulazioari dagokionez, dagoeneko nabarmendu da **kontratazio administratiboan** dutela eragina eta, gure ustez, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak horiei buruzko iritzia eman behar duela. Espedientea presaz izapidetzen ari delako edo beste edozein arrazoi dela medio, iritzi hori iristen ez bada, eta ogasunari dagokion arloa denez, Bulego honen ustez ezinbestekoa da, gutxienez, 145. artikuluko 4. atalean xedatuari buruzko iritzia plazaratzea.

Aurreproiektuko 145. artikuluko 4. ataleko bigarren lerroaldean zerbitzu publikoen prestazio *"zuzena"* aurreikusten da, *"zerbitzu publikoetako sozietate-kooperatiben"* bidez.

Lerroalde horretan adierazten denez, sozietate-kooperatiba horietan eskumeneko erakunde publikoek parte hartuko dute pertsona bazkide modura

eta, "hala badagokio, sektorean esperientzia frogatua duten erakunde pribatuek".

Azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 277. artikuluan ezartzen denez, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratazioak, besteak beste, Administrazioak, bere kabuz edo erakunde publiko baten bidez, pertsona natural edo juridikoekin konkurrentzian, parte hartzen dueneko ekonomia mistoko sozietate modalitatea har dezake.

Kontratazio Publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2004/18/EE Zuzentarauan (2004/18/EE Zuzentaria indargabetzen duena), 118. oharrean adierazten denez, "Zerbitzu publikoen jarraikortasuna bermatze aldera, Zuzentaria horren bidez osasun-zerbitzuen, gizarte zerbitzuen eta kultura zerbitzuen esparruan, zerbitzu jakin batzuen lizitazio-prozeduretan parte hartzeko aukera horietako langileen jabetzakoak diren erakundeentzat edo zuzendaritzan langile horiek parte-hartze aktiboa duten erakundeentzat, eta existitzen diren erakundeentzat (esate baterako, azken erabiltzaileei zerbitzu horiek ematen parte hartzen duten kooperatibak) gordetzea ahalbidetu behar da. Xedapen honen esparrua zerbitzu hauentzat mugatu behar da berariaz: osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak eta beste zerbitzu konexu batzuk, hezkuntza eta prestakuntza arloko zenbait zerbitzu, liburutegiak, artxibategiak, museoak eta beste zenbait kultura zerbitzu, kirol zerbitzuak eta etxe partikularretarako zerbitzuak. Eta ez da asmoa Zuzentaria honetan aurreikusten diren gainerako eskusioak haren menpe geratzea. Zerbitzu horiek araubide sinplifikatuaren menpe geratu behar dira soilik".

Aipatutako Zuzentariaren 77.1. artikularen arabera, "Estatu kideek aukera izango dute xedatzeko botere esleipendunek izan dezatela eskumena kontratu publikoak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea erakunde jakin batzuentzat gordetzeko 74. artikuluan aipatzen diren gizarte-zerbitzu, kultura zerbitzu eta osasun-zerbitzuen kasuan eskusiboki...".

74. artikulua horretan ezartzen denez "Gizarte-zerbitzuetako eta XIV. eranskinean zerrendatzen diren beste zerbitzu espezifikoko batzuetako kontratu publikoak kapitulu honetan ezarritakoaren arabera esleituko dira kontratu horien balioa 4. artikuluko d) idatz-zatian adierazitako atalaseari dagokiona bada edo handiagoa bada". Atalase horren zenbatekoa 750.000 eurokoa da.

2014/24/EE Zuzentariako 77.1. artikuluan aipatzen diren erakundeek 77. artikulua horretako 2. atalean zerrendatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, eta artikulua bereko 3. atalarekin bat etorritik, kontratuaren gehienezko iraupena hiru urtekoa izango da.

2014/24/EE Zuzentarau horretako 90. artikuluan ezartzen denez, *"Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak indarrean ipiniko dituzte estatu kideek, beranduenik ere 2016ko apirilaren 18an"*.

Aipatutako Zuzentarau horretan, horrenbestez, herritarrei zuzendutako zerbitzu jakin batzuetan araubide berezi bat egotea aurreikusten da, Zuzentarau horretan jasotzen den esparruan, Autonomia Erkidegoen eskumenekoa den arlo batean, horiek baitira zerbitzu horien kudeaketa beregain hartu dutenak.

Badira Sozietate Kooperatiboen Legearen Aurreproiektuaren edukian gogoeta sakonagoa merezi zuten bi alderdi:

Alde batetik, Aurreproiektu horrek aipatutako Zuzentaruaren adierazten den zerbitzuen esparrua gairatzen duela, izan ere, bertako 145. artikuluan *"zerbitzu publikoak"* aipatzen dira orokorrean.

Beste alde batetik, aipatutako 145. artikuluan sozietate kooperatiban parte-hartzeko aukera aurreikusten dela, eta haren alde *"sektorean esperientzia frogatua duten erakunde pribatuek"* zerbitzu publikoak *"zuzenean emateko"* aukera gordetzen da. Aurreikuspen horrekin sektore publikoko kontratazioa arautzeko printzipio eta xedapenak urratzeko bide bat ireki daiteke, izan ere, kontratu publikoetara sartzeko baldintzak kontratazio publikoko araudian ezarritako muga eta baldintzen menpe egon behar dira eta sektore publikoko erakundeen kontratazioa arautzeko printzipioak errespetatu behar dituzte.

Horri dagokionez, Auzitegi Konstituzionalaren 2015eko apirilaren 30eko Epaiak 1884-2013 zenbakidun konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan ezarritako doktrina ekarri behar da gogora. Interesgarria da Europako Zuzenbideko arauen menpe jokatzearen ala ez jokatzearen inguruan egiten den deklarazioa *"estali gabeko kontratua"* izaki, izan ere, argiro baieztatzen da horrek ez duela baztertzen kontratazio publikoko printzipioen menpe egoteko betebeharra, ezta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua ez denean kontratu harmonizatua ere, eta agintaritza publiko batek hirugarren bati zerbitzuetako jarduerak emateko agintzean betetzekoak direla tratu-berdintasunerako printzipioa eta bertako adierazpen espezifikokoak.

Horrenbestez, aipatutako manua egindako oharren arabera gainbegiratu behar dela ulertzen dugu, edozein kasutan Aholku Batzordearen irizpide hobearen baitan, baldin eta azkenean aurreproiektuari buruzko iritzia emango balu, edo Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizten duenaren baitan.

II.2.2.- DIRU-SARRERA PUBLIKOAK

Zehapenei dagokienez, aztergai dugun aurreproiektuan enplegu arloan eskumena duen Sailari esleitzen zaio zehapenerako eskumena eta zehapen motak aztertu eta horien zenbatekoak eguneratzen dira, zioen azalpenean aurreratzen den moduan. Horren ondorioz, diru-sarrera publikoak zertxobait areagotuko direla iradoki daiteke modu arrazoituan (aipatutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 32.g) artikulua) zehapenetatik eratorrita. Haatik, Bulego honek eskuratu duen dokumentazioan ez da horri buruzko estimaziorik jasotzen.

II.3.- ERAGIN EKONOMIKOA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUETAN, PARTIKULARRENGAN ETA, EKONOMIA OROKORREAN.

Espedientean jasotzen den memoria orokorrean, horri dagokionez, adierazten denez, *"sustapen-jarduera dagoeneko jasotzen da egungo legedian, beraz eragina oso txikia izango litzateke partikularrei eta ekonomia orokorrari dagokienez"*.

Ez da hori egiaztatzen duen estimazio bat jasotzen, nahiz eta horren zailtasuna ez zaigun ezkututzen. Dena den, sektorean edo hirugarrenei eragin ekonomikoak, negatiboak nahiz positiboak, zamak besteak beste, ekar diezazkieken manuak ikusten ditugu (hala, sakonegi behatu gabe, manu hauek aurkitu ditugu: administrariaren ordainsariari dagozkion mugak, 44. artikuluan; administrariari kalte eta galerengatik kalte-ordainketa eskatzea, justifikatu gabe ukatzeagatik, 45. artikuluan; 58.4. artikuluan barneratzen den aurreikuspen berria; 64. artikuluko in fine aurreikuspen berria, hartzekodun pertsonalei buruzkoa; galerak egozteari buruzko araudiko aldaketak, 72. artikuluan; gutxiengo diren bazkide eskatzaileek eskatutako kanpoko ikuskapenetik eratorritako gastuei beraiek beregain hartzeko betebeharrari buruzko aurreikuspena, 75.a.b) artikuluan; bazkideen hartzekodun pertsonalek kooperatiben ondaren gainean inolako eskubiderik ez izateari buruzko aurreikuspena; bazkide-langileen etete edo derrigorrezko bajarekin lotutako kausa berriak, antolamendu eta ekoizpen arlokoak, 106. artikuluan; etxebizitzaren kooperatibetan sartutako berrikuntzak (119. artikuluko exijentzia, hots, bazkideen % 50 gutxienez etxebizitzaren hartzaile izateari buruzkoa, esleipendunen kontura entregatutako zenbatekoak bermatzeko aseguru bat kontratatzeko premia; letradun aholkulariaren aldeko irizpenarekin lotutako eskakizuna, etxebizitzaren balizko hartzaile gehiago izateari buruzkoa); 146. eta 147. artikuluetan barneratzen diren abantailak, dagoeneko aipatu ditugunak, zehapen-araubide berria (148. artikuluan eta hurrengoetan).

Hauxe da azaldu behar zen guztia. Txosten hau Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari bidali zaio, izapidetutako espedienteari eransteko.